


Emakume Aske eta
Borrokalaria



FEMINISMO IRAULTZAILE ETA ANTIKApitalista



Martxoak 8
GREBA OROKOR FEMINISTA

Martxoak 8

24 Orduko greba orokor feminista!

**INDARKERIA MATXISTARIK EZ
JUSTIZIA PATRIARKAL ETA FRANQUISTARIK EZ
ZAPALKUNTZA KAPITALISTAREN AURKA**

► KONTRAPORTADAN HASTEN DA

**PP, Cs eta VOX:
Matxismoaren,
patronalaren eta
frankismoaren ahotsa**

Goian aipatutakoari PP, Cs eta VOXen arteko aliantza gehitu behar zaio. Andaluziako gobernu eskuratzeko itunak soilik patronalaren eta lurjabeen interesei egingo die mesede. Aliantza horretan argi ikus daitekeenez, nazionalismo espainiarren, arrazakeriaren, matxismoaren eta homofobiaren adierazpiderik gordina da.

Nola ez, emakumeak eta haien eskubideak daude bloke erreazionarioen jomugan. Eta hori beste erkidegoetara zabal daiteke, baita estatu mailara ere. Arrisku hau ez da uxatuko "konstituzioaren balioak defendatzea" gisako aldarrikapen hutsalak erabiliz, ezta usteko eskuin demokratikoari erregutuz ere, muturreko eskuinarekin bat ez egiteko eskatuz. Horixe bera egin dute, PSOEkoek eta



Podemoseko hainbat buruzagik. PP, Cs eta VOXek ideologikoki bat egin baduzte, hori partekatzen duten izaera frankista, arrazista eta matxistaren ondorio da.

Milioika zapaldu zutik

Sufrimendu honek guztiak benetako matxinada piztu du. Pasa den martxoaren

8an, sekulakoa egin genuen: inoiz ez genuen egun horretan hainbeste mobilizazio eta hain handiak izan, ikasleok eta langileok erabateko greba egin genuen, eta milioika lagunek osatutako manifestazioak egin ziren nonahi.

Baina gure mugimenduak ez du mugarik ezagutzen: aukera eman digu Irlandako erreferendumean abortuaren despe-

nalizazioaren aldeko garaipena ospatzeko; egiako tsunami bat piztu dugu Argentinatik Poloniara, Brasiletik Estatu Batuetara, Indian barrena.

Sistema kapitalistaren defendatzaileek jakin badakite, zapalkuntzarik gabe aske bizitzea aldarrikatzen dugunean, horrek talka egiten duela egungo ordena soziala mantentzearekin. Gure borrokaren ahalmen iraultzailearekin izurrik daude. Trumpen eta Bolsonaroren matxismoa ez da halabarrez gertatu, ezta haien arrazakeria setatsua ere. Horrela erantzuten die zapalduen bota diegun eronkari.

**Martxoaren 8an dena
geldiaraziko dugu!
Feminismo iraultzaile eta
antikapitalistaren alde!**

Bistan da larrutik ordaintzen ari garela CCOOeko eta UGTeo buruzagien desmobilizazio politika, baita PSOEren gobernuarekiko Podemosek erakusten menpekotasuna ere. Hilabeteak eman

ditu Pedro Sanchezek Moncloan. Hala ere, azken urteotako erasoak eta murrizketa gogorrek aurrera egiten jarraitzen dute. Horregatik esan beharra dago argi eta ozen: Aski da! Ez zaitzete makurtu bankarien eta enpresarien aurrean! Ez zaitzete makurtu estatu frankistaren eta hierarkia katolikoaren aurrean!

Horregatik guztiagatik, Emakume Aske eta Borrokalariak, Ikasle Sindikatua-rekin eta Ezker Iraultzailearekin batera, dei egiten diegu gazte guztiari martxoaren

8ko ikasleen greba orokorrean parte hartzeko. Aldi berean, ELA, LAB, CCOO, UGT eta sindikatu guztiak 24 orduko lan greba orokorrera deituzki eskatzen diegu. Emakumezko zein gizonezko langile eta ikasle guztien batasuna behar dugu, jarduera ekonomiko osoa gelditzea, emakumeen eskubideen alde. Ez ditugu 10 minutuko lanuzte sinbolikoak behar. Ez dugu itxurazko feminismo nahi, martxoaren 8an begizta morea paparrean daramaten horien aldetik, gero austeritate politikak onartzen badituzte. Ahalik eta presiorik handiena egin be-

harra dago PSOEren gainean gure aldarrikapenak gauzatzeko eta eskuinari argi uzteko ez gaudela prest atzera pauso bakar bat ere emateko.

Greba orokorra dugu tresnarik eraginkorra gure benetako indarra erakusteko. Gainera, joan den urteko martxoaren 8an gertatu bezala, lantokietan eta ikastetxeetan eginen dugun greba orokorrak aukera emanen du zapalketa matxistaz baliatzen diren feminista falsuei mozorroa kentzeko, besteak beste, emakume langileak zapalduz eta diskriminatuz irabazi handitzen dituztenei, feminismo "transbertsala" alde egiten duten Botin

anderea bezalako bankarici, milaka familia, tartean emakume ezkongabeak eta bananduak, etxetik kaleratzen dituztenei edo 78ko erregimeneko diputatuak, alkatesak eta emakume ministroak, tipula-negarrik egiten dute murrizketa-politikak aplikatuz gehiengo, bereziki emakumeak, pobretzen dituzten bitartea.

Emantzipazioaren aldeko borroka iraultzailea da, klasekoa eta internazionalista. Gure kateetatik libratuko bagara, kapitalismoa errotik gainditu eta gizartearen eraldaketa sozialistaren alde borrokatu beharra dago. Horrela bakarrik lortuko dugu askatasuna eta berdintasuna, klase, genero edo arraza zapalkuntzarekin amaituz.

Eraiki dezagun batera feminismo iraultzaile eta antikapitalista!

Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!

- Zigor eredugarriak emakumeen kontrako bortxaketak eta eraso fisiko edo psikologikoen arduradunei. Erasotzaileen zigorgabetasunaren alde egiten duten polizien eta epaileen berehalako kaleratzea.
- Baliabideak eta aterpetxeak tratu txarrak pairatu dituzten emakumeentzat. Lan duina edo mugagabeko langabezia prestazio baten alde. Etxebizitza duinak tratu txarren biktimen eta haien seme-alabentzat.

**Etxeko lanen kateak apurtu ditzagun!
Lan bera, soldata bera!**

- Lan erreforma eta murrizketa sozialak bertan behera utzi. Deontzako soldata duinak. 1.200 euroko gutxieneko soldata. Zigor eredugarriak ama izateagatik diskriminatzen duten enpresei.
- 6 hilabeteko amatasun-baimena gurasoentzako, soldata osoarekin.
- Haur eskola duinak, publikoak eta doakoak. Garbitegi, jantoki, etxeko garbiketa zerbitzu publikoa eta doakoa.
- Mendekotasunerako laguntza publikoen igoera mardula.

Gure gorputza, gure erabakia!

- Heziketa sexuala inklusiboa, ebaluagarria eta derrigorrezkoa ikastetxe guztietan, garena izan ahal gaitzen, edozein dela ere gure generoa, sexu orientazioa edo mortasuna. Aski da, mezu matxista eta homofoborik ez! Erlijioa kanpora ikasgeletatik!
- Abortu libre, doako eta seguruaren alde. Familia planifikazio zerbitzu publikoak eta kalitatezkoak. Doako antisorgailuak osasun etxean eta farmazietan.
- Prostituzioa abolitu eta haren kontura aberasten diren botere enpresarial eta politikoak borrokatu, zapalketa matxistaren erarik zitalena baita. Haurdunaldi subrogatuaren eta horren inguruko arautzearen aurka, gure eskubideen defentsaren mozorropean, gure gorputzaren salmenta eta merkantilizazioa ahalbidetzen duelako.

Rosa Luxemburgo

Iraultzaile erosezina

Urtarrilaren 15ean 100 urte bete dira Rosa Luxemburgo erail zutenetik Karl Liebknechtekin batera. Iraultzaile handia, militante internazionalista eta marxismoaren teorialaria, bere bizi, indar eta adimen osoa gizartearen eraldaketa sozialistari eskaini ziolako hil zuten.

1871ko martxoaren 5ean jaio zen Zamoscen, errusiar tsarismoaren menpeko Poloniako hiri txiki batean. Jaio eta

gutxira, bere familia Varsoviara mugitu zen, eta bertan hasi zuen ibilbide politikoa 15 urterekin. Geroztik, borroka nekaziez, exilioz eta errepresioz betetako bizialdia izan zuen.

Rosa gazteak garrantzia handia izan zuen, lehenik, Poloniako sozialdemokraziaren eta, ondoren Alemaniako sozialdemokraziaren garapenean. Tinko borrokatu zuen Bersteinen ideia erreformisten aurka, izan ere,

ideia horiek langile iraultza ordezkatzea planteatzen baitzuten erakunde kapitalistekin elkarlan baketsuan jarduteagatik. Langile internazionalismoaren bandera ere indartsu defendatu zuen, Lenin, Trotsky edo Connolly bezalako iraultzaileen alboan. Sozialdemokrata alemaniarren traizioa ozen salatuz, 1914ko abuztuaren Reichstegean gerra kredituen alde bozkatu zutenean, langile klasea gerra inperia-

listaren interesetan elkar hiltzera kondenatzea baitzen.

Rosa Luxemburgok erakunde sozialisten barneko matxismoari ere aurre egin behar izan zion, bere irizpideen independentzia defendatzeko. Eta beti egin zuen hori, feminismo burgesaren ideien aurrean makurtu gabe eta, bere burkide zen Clara Zetkinen alboan, klaseko feminismo iraultzailearen defentsan aitzindari bilakatu.



104 orri. • 6 €



120 orri. • 8 €



148 orri. • 8 €



200 orri. • 8 €



120 orri. • 8 €



**Bat egin
Aske eta
Borrokalariekin!**

www.libresycombativas.net

Martxoak 8

GREBA OROKOR FEMINISTA

INDARKERIA MATXISTARIK EZ

JUSTIZIA PATRIARKAL ETA FRANKISTARIK EZ

ZAPALKUNTZA KAPITALISTAREN AURKA

Krisi ekonomikoak modu gordinean jarri du agerian emakume langileok jasaten dugun zapalketa. Matxismoak etengabe kolpatzen gaitu gure bizitza osoan, familia eta lan eremuan, gure bikote eta harreman sozialetan. Eta horren adierazpiderik basatia indarkeria fisiko eta sexuala da.

Datu ofizialek diotenez, azkenengo hamabost urteetan 1.000 emakume izan dira beraien bikotekideen edo bikote ohien esketan erailak. Horietako 47 2018. urtean. Iaz, egunero tratu txarren 500 salaketa erregistratu dira eta sei ordutik behin, bortxaketa bat. Gainera espainiar Estatu emakumeek jasaten duten zapalketarik basatienaren buru da: prostituzioa. 400.000 eta 600.000 emakume, gehienak behartsuak eta etorkinak, sexu esklabo moduan harrapatuta daude, 1.700 burdeletan, egunero 5 miloi euro mugitzen dituztenak. Negozio itzel honen atzean dauden lobby proxenetek emakumeen aurkako indarkeria hau erregularizateko kanpaina indartsu bat jarri dute abian. Eta horretarako, enpresariaren, poliziaren, justiziaren eta komunikabide askoren laguntza dute, baita haien mozkinak zuritu nahi dituzten banketxe handienak ere.

Gaur inoiz baino argiago ikus daiteke faltsua dela gizarte hau berdintasunean eta justizian oinarritzen dela. Botere erreala dutenek –kapitalista handiek– eta oinarritzat dituzten egitura instituzionalek (justizia auzitegiek, aparatu polizialak eta 78ko erregimenaren alderdiek) zapalketa lazarri hau onetsi eta iraunarazten dute.

“La Manada” sistema bera da

La Manadaren talde bortxaketaren prozesu guztiak erakutsi digu gure borroka ez dela soilik erasotzen gaituztenen aurkakoa, baita horiek babesten dituen sistemaren aurkakoa ere.

Gure borroka erasotzen gaituzten gizonezkoen aurka egitera ez ezik, babes ematen dien sistemaren kontra ere zuzenduta



dago, “La Manadaren” talde bortxaketaren inguruko prozesuak erakutsi bezala. 5 muntro izan ziren krimen izugarri hori egin zutenak. Baina bortxaketa ukatu, behin behineko askatasunean utzi eta zigor lotsagarriak ezarri zituztenak zenbait magistratu izan dira, tartean emakumezko epaile bat. Gauza bera gertatu da beste “manadekin” edo Juana Rivasi ezarri zioten epai umiliagarriekin edo haien kapataz zapaltzaileen aldetik sexu jazarpenera jasan zuten Huelvako sasoiako langileen kasua artxibatzearekin. Ez dira kasu isolatuak, baizik eta “justizia” matxista, klasista eta atzerakoiaren ondorio zuzenak dira.

Epaile berberak dira etxetik kaleratzen gaituztenak, txiolarriak eta raperoak zigortzen dituztenak, ezkerreko sindikalistak, ekintzaileak edo Altsasuko 8 gazteak egin ez dituzten delituenatik espetxeratzen dituztenak. Haien diru Kataluniako herriaren aurkako errepresio polizial basatia erabiltzen dutenak eta Uleko erreferendumaren bultzatzaileak epaitzen dituztenak, “matxinda militarra” leporatuz. Eta gainera, banketxeak saritzen dituzte, hipoteken kasuan bezala, diktadurako torturatzaileak zigorrik gabe uzten dituzte, monarkiaren ustelkeria zuzitzen dute eta dirua esku betez lapurtzen duten politikoak errugabetzen dituzte.

Zalantzarik gabe aparatu judiziala aberatsen zerbitzuan dago. Eta bi gobernuak, lehenago PPkoa eta orain PSOEkoa, oztantazunez makurtzen dira frankistez eta matxistez beteriko epaileriaren aurrean, gu etsitu eta etxean sartzen saiatuz. Baina milioika emakumek aski dela esan dugu. Amaitu dira mutu eta esaneko izateko garaiak.

Austeritateak eskubideak lapurtzen dizkigu

Langile klasearen parte garen emakumeok ez diogu soilik etengabeko eta egiturazko indarkeria fisiko, psikologiko eta sexualari aurre egin behar. Austeritate kapitalistak ere bortxatzen eta zapaltzen gaitu.

Banketxeek dirua barra-barra oparitzen dieten bitartean, murriztu egiten dituzte osasun publikoa eta mendekotasunerako laguntzak, eta gure gain geratzen dira gaixoen eta adinekoen zaintza. Jantokietako diru-laguntzak kentzeak eta haur eskoletako plaza faltak ez izateak etxeko lan itogarriak areagotzea dakarte, eta berriro ere etxeko lau pareten artean sartzera behartuta gaude.

Lan munduan emakumeak, gazteekin batera, langabeziaren buru gara. Eta lan egiten badugu, gizonezkoek baino %30 gutxiago kobratzen dugu, lan bera egin arren. Behin behineko kontratuen hiru laurdenak emakumezkoenak dira, eta jubilatzen garenen, gure pentsioak gizonezkoena baino heren bat baxuagoak dira. “Familiaren defentsa” aldarrikatzen duten erreazionario taldeek erantzunez, esplotazio baldintza horiek, kasu askotan, gure amatasunaren eskubidea ukatzen digute.

BARRUALDEAN JARRAITZEN DU ▶



**Ikasle
Sindikatuak**
**EZKER
IRAULTZAILEA**

Lagundu
ekonomikoki

emakumeaskeetaborrokariak @AsketaBorroka Emakume Aske eta Borrokariak
633 133 818 • askeetaborrokariak@gmail.com